

→ teko aukera ematen baitute. Pertsona adina sexualitate egon arren, horrelako eskaintzek onura baino gehiago kalte egiten dute Amaia Vazquezen ustez: «Nerabeei adibidez, kalte besterik ez die egiten pornografiaren kontsumoak; frustrazioa besterik ez die sortzen».

Menpekotasun berriak interes ekonomikoen babesean

Menpekotasun horiek edukitzeko aukerak ugaritzen dituzten hainbat arrisku edo ahultasun psikologiko daude: autoestimua baxua, ondorioetan erreparatu gabeko ekintzak egiteko joera, depresioa, eta besteak beste, bakardadea. Faktore arriskutsu horiei gizaratean indarra duten baloreak eta mezu publizitarioak gehitu behar zaizkio. «Izan ere, badirudi zenbat eta gehiago eduki, orduan eta gehiago garela. Mezu horien atzean interes ekonomiko batzuk daude, eta horiei komeni zaie kontsumitzaileak edukitzea», adierazi digu Etxaburuak.

Esan bezala, aurrez aipaturiko sexu eskaintza horien gehiegizko kontsumoak hainbat ondorio kaltegarri sortzen ditu. «Baina hori da gaur egungo gizarateari



interesatzen zaiona; kontsumitzaileak», gaineratu digu Amaia Vazquezek.

Egungo gizaratean negozio handia dago sexuaren inguruan. Eta askotan, sexu askapena bailitzan saltzen dute. Baina negozioia den zerbait nekez izan daiteke askatasuna. Esaterako, bikoteak elkar trukatzeko lekuak daude; Bilbon bada bat. Aipatu lekue-tara sartzeko, ordea, ordaindu egin behar da. Gauza bera gertatzen da mutilen *striptease* egiten den lekuetan. «Emakumeen askapenerako lokal gisa definitzen dira askotan, baina gorputz bat saltzen da... tranpa da hori askatasuna kontsideratzea». Hala ere, sexu menpekotasunaa edota sexu eskaintzen gehiegizko kontsumoa, batik bat, gizonezkoek egiten dutela argitu digu Amaia Vazquezek. Eta joera horien zergati-tako bat haurrek jasotzen duten heziketa sexual urria izan ohi da. «Pubertaroan has-ten dira sexu informazioa jasotzen, eta, be-raz, hainbat gairi buruz aurritzi eta in-formazio oker ugari izaten dute».

Janaria ere kontsumorako pro-dukto garrantzitsua bihurtu da. «EEBBetan adibidez, hanburgesen menpekotasunaa dutenak senda-tzeko elkarte anonimoak daude, hemengo alkoholiko anonimoen antzekoak», jakinarazi digu Lorea Beñaranek. Bere ustez, egungo gizar-te kapitalistak bultzatzen duen gehiegizko kontsumoaren eraginez gertatzen da hori.

Internetekiko adikzioa, sarean harrapatuturik

Bat-bateko interakzioa, planetaren bes-taldean dagoen jendearekin komunika-tzeko gaitasuna eta informazio iturri inte-raktiboaren multzo imaginaezina. Horiek dira Interneten sedukzioaren ezaugarri batzuk. Horiekin Mundu Zabaleko Sarea edo WWW famatua hasi da gizakume batzuk harrapatzen, *webadiktoak* edo *web junkie*-ak sortzen.

Ivan Goldberg Chicagoko psikiatrak Internet Addiction Disorder (IAD) kon-tezeptua asmatu zuen erdi brometan, Internetekiko adikzioaren sintomak defi-nitzeko, baina bere lankideek seriotan hartu zuten, eta laster lehendabiziko iker-ketak hasi ziren plazaratzen gaixotasun berri honen gainean.

Psikologoaren artean, berriz, Pathologi-cal Internet Use (PIU) izena zabaltzen zuen Kimberly Young doktoreak, eta EEBBetako psikologoaren artean ofizialki osasun mentalaren gaixotasun (disorder) bezala sailkatu zen 1997an.

Internauta askorentzat sareak beneta-ko mundua ordezkatu du. Nahiago dute konputagailuarekin komunikatu, lagun eta familiakoekin baino. Elektronikoki sarean zabaltzen diren neurrian, harre-man pertsonaletatik urruntzen dira. Esperientzia birtualek benetakoak orde-zkatzen dituzte, eta horrela, familia, ikas-keta, bikote eta lanpostu asko hondatu dira IAD edo PIU honen ondorioz.

Internetekiko adikzioa portaeraren (behavioural) adikzio bat da, ludopatia-ren gisakoa. Ez da fisikoa morfinismoa bezala, baina nabigatzeak efektu psiko-

estimulantea du gaitza jasaten duena-rentzat. Erosketazale konpultsiboen, erretzaileen eta alkoholikoen ezaugarri batzuk ere badituzte, hortaz, *web junkie* hauek.

Viktor Brenner psikologo eta irakasle-ak inkesta bat ezarri zuen sarean, 1996ko hasieran, erabiltzaileen artean gai honi buruzko lehendabiziko azterketa egiteko. Berau erantzun zuten 25 herrial-detako 408 lagunengandik lehenengo datuak atera zituen:

%58ri Interneten denbora gehiegi ematen zutela esana zieten etxean.

%46k gauren batean konektaturik ego-teagatik lau ordu edo gutxiago egin zuten lo.

%31ren lan erritmoa jaitsi egin zen Internet erabiltzen hasi zirenetik.

%12k Interneten bidez ezagutu zituz-ten lagun gehien.

%7ri ugazabek edo irakasleek errieta egin diete Interneten gehiegizko erabile-ra dela eta.

Web nabigazioa ez da, hala ere, Inter-neten adikziorik indartsuena sortzen duena, *chat* edo berriketa guneak baizik. Bertan jendeak orduak eta orduak ema-ten ditu ezagutzen eta ikusten ez duen jende birtualari bere bizitza kontatzen. Beti zerbait bilatzen du horretan ibiltzen den jendeak, laguntasuna eta maitasuna gehienetan. Gehiegizko erabileraren ondorioz, efektu psikologikoak ez ezik, efektu materialagoak ere badira. Telefo-no faktura heltzen denean, beti uste baino handiagoa da, eta horrek ere ara-

zoak sortzen dizkie adiktoei etxean. Lan arloan, berriz, berriki jakin da Espainian enpresatik egotzi duten langile baten kasua.

• Jabi Zabala •

